**Kontrol Kodea**
Código de Control

**GEF-GET-IBI-02-DN.487 //**

| | |
|---|---|
| **0032020060501**<br>**Nork ordaindu behar du higiezin baten OHZ?** | **0032020060501**<br>**¿Quién tiene que pagar el IBI de un inmueble?** |
| Urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean kasuan kasuko eskubidearen titularra denak. | Quien sea titular del derecho correspondiente a 1 de enero de cada año. |
| **0032020060502**<br>**Zenbat aldiz ordaindu behar dut zerga?** | **0032020060502**<br>**¿Cuantas veces tengo que pagar el impuesto?** |
| OHZ aldizkako eta urteko zerga bat da; urtero ordaindu behar da, urtarrilaren 1ean higiezin baten titularra izanez gero. | El IBI es un impuesto anual y periódico, que se debe pagar todos los años en los que a 1 de enero se mantenga la titularidad del inmueble. |
| **0032020060503**<br>**Nola jakin dezaket nik erositako higiezina dagoeneko nire izenean dagoen OHZren ondorioetarako?** | **0032020060503**<br>**¿Cómo puedo saber si el inmueble que he comprado está ya a mi nombre a efectos de IBI?** |
| Zerga Alorreko Arreta Zerbitzuan galde dezakezu, informazio hau emanez:<br>• Higiezinaren zenbaki finkoa.<br>• Erosketa-eskrituraren protokolo zenbakia, data eta notarioaren izena.<br>Eskritura aurkeztuta dagoela eta titulartasuna aldatu egin dela egiaztatuko da. | Puedes preguntar en el Servicio de Atención Tributaria, aportando la siguiente información:<br>• Número Fijo del inmueble.<br>• Nombre del Notario, fecha y número de protocolo de la escritura de adquisición.<br>Se verificará que la escritura está presentada y el cambio de titularidad realizado. |
| **0032020060504**<br>**Aurten etxebizitza bat erosi dut. Aurtengo OHZ ordaindu behar dut?** | **0032020060504**<br>**He comprado una vivienda este año. ¿Tengo que pagar este año el IBI?** |
| Urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean higiezinaren titularra denak izango du OHZ ordaintzeko betebeharra. Horrenbestez, higiezina urtarrilaren 1aren ondoren erosiz gero, erosleak erosi eta hurrengo urtean izango du ordaintzeko betebeharra.<br>Ordainagiria saltzaile eta eroslearen artean banatzeko itunak, higiezinaren titulartasuna bakoitzak izan duen denboraren arabera, ez du eraginik subjektu pasiboa ebazten; hortaz, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean betebeharra duenari eskatuko dio zerga Getxoko Udalak. | El obligado al pago del IBI será el titular del inmueble a 1 de enero de cada año. Por lo tanto, en el caso de que la adquisición se produzca con posterioridad al 1 de enero, el comprador está obligado al pago el año siguiente al de la adquisición.<br>Los pactos entre comprador y vendedor para distribuir el recibo en función del tiempo que cada uno haya sido titular del inmueble no afectan a la determinación del sujeto pasivo, por lo que el Ayuntamiento de Getxo exigirá el impuesto a quien resulte obligado a 1 de enero de cada año. |
| **0032020060505**<br>**Zein datatan ordaindu behar dut OHZ?** | **0032020060505**<br>**¿En qué fechas tengo que proceder al pago del IBI?** |
| OHZ urteroko aldizkako zerga bat da, eta zergaldiak urte naturalarekin bat datoz.<br>Zerga ordaintzeko data zehatzak Getxoko Udalak urtero onartuko duen Zerga-egutegi Fiskalean finkatuko dira. Data horiek jakitera emango dira, zerga-egutegia argitaratuz BAOn eta Udalaren webgunean www.getxo.eus | El IBI es un impuesto periódico de carácter anual y el período impositivo coincide con el año natural.<br>Las fechas concretas en las que debe procederse al pago del impuesto están fijadas en el Calendario Fiscal del Contribuyente que en cada año apruebe el Ayuntamiento de Getxo. Se dará a conocer tales fechas mediante la publicación del Calendario Fiscal en el BOB y en la página web del Ayuntamiento www.getxo.eus |
| **0032020060506**<br>**Nola ordain ditzaket OHZren ordainagiriak?** | **0032020060506**<br>**¿Cómo puedo proceder al pago de mis recibos de IBI?** |
| Aldizkako zergak direnez, Getxoko Udalak honako aukera hauek eskaintzen dizkie zergadunei OHZren ordainagiriak ordaintzeko:<br>1. Ordainagiri bakoitzeko ordainketa-gutun bana igortzen da etxera, zergadunak zuzenean eta aurrez aurre ordain dezan finantza erakundean edo modu telematikoan, entitatearen webgunearen bitartez edo ordainketa pasabidearen bitartez.<br>2. Helbideratutako kobrantza arruntaren bitartez, epe bakarrean. Horretarako, eskaera egin beharko da *Aldizkako zergen helbideratze agiri normalizatua* aurkeztuz, eskatutako dokumentazioarekin batera.<br>3. Kopurua Ordainketa Nahierara aukera baliatuz ere ordaindu ahal izango da, helbideratuta, zatikatuta eta interesik gabe; bi aukera daude (4 epe eta 2 epe), eta eskaera egin beharko da *Aldizkako zergen helbideratze agiri normalizatua* aurkeztuz, eskatutako dokumentazioarekin batera. | Tratándose de un tributo de carácter periódico, las formas de pago que el Ayuntamiento de Getxo ofrece a los contribuyentes son las siguientes:<br>1. Mediante la remisión al domicilio de una carta de pago por cada recibo para que el contribuyente la abone directamente de forma presencial en una entidad financiera asociada o de forma telemática, bien a través de la web de su entidad, bien a través de la pasarela de pagos.<br>2. Mediante el cobro domiciliado ordinario en un único plazo, que deberá solicitarse mediante la presentación del *Documento normalizado Domiciliación de Tributos periódicos,* junto con la documentación requerida.<br>3. Mediante el cobro domiciliado fraccionado sin intereses denominado Pago a la Carta que presenta 2 modalidades (4 plazos y 2 plazos), que deberá solicitarse mediante la presentación del *Documento normalizado Domiciliación de Tributos periódicos,* junto con la documentación requerida. |

**Kontrol Kodea**
Código de Control

**GEF-GET-IBI-02-DN.487 //**

| **0032020060507**<br>**Ordainagiria etxean jakinaraziko didazue?** | **0032020060507**<br>**¿Me notificáis el recibo a mi domicilio?** |
|---|---|
| Aldizkako zerga denez, Getxoko Udalak higiezina erosi den urteari dagozkion likidazioak baino ez ditu jakinarazi behar hartu agiriarekin. Kasu honetan, ordainagiriak ordaintzeko betebeharra duenaren helbide fiskalera igorriko dira.<br>Hurrengo urteetan likidazioak ez zaizkio banaka zergadun bakoitzari jakinaraziko; aitzitik, modu kolektiboan jakinaraziko dira, BAOn iragarki bat argitaratuz. Hala, zergaren errolda onartu izana eta zergadunak zerga borondatezko aldian ordaintzeko datak ere jakinaraziko dira.<br>Zergadunaren betebeharra errazteko, Getxoko Udalak ordainketa helbideratua hautatu ez dutenen helbide fiskalera ordainketa gutunak igorriko ditu, horiei esker zerga atxikitako finantza erakundeetan ordaindu ahal izateko.<br>Jakinarazteko betebeharra BAOn iragarki bat argitaratuz bete denez, aipatutako ordainketa gutunak ez jasotzeak ez du jakinarazpen akatsik eragingo eta, horrenbestez, zergadunaren betebeharra izango da aipatutako dokumentua Getxoko Udalaren Zerga alorreko Arreta Zerbitzuan lortzea, zerga borondatezko aldian ordaindu ahal izateko. | Al tratarse de un impuesto periódico, el Ayuntamiento de Getxo sólo tiene la obligación de notificar con acuse de recibo las liquidaciones correspondientes al año de adquisición del inmueble. En este supuesto los recibos serán remitidos a la dirección fiscal del obligado al pago.<br>En los años sucesivos, la notificación de las liquidaciones no se realizará de forma individual a cada contribuyente sino de forma colectiva, mediante publicación de un anuncio en el BOB indicando la aprobación del padrón del impuesto y las fechas en las que el contribuyente deberá proceder su pago en período voluntario.<br>Para facilitar esta obligación del contribuyente, el Ayuntamiento de Getxo remite al domicilio fiscal de aquellos que no hayan optado por el pago domiciliado, cartas de pago que le permitirán el abono del impuesto en las entidades financieras adheridas.<br>Debido a que la obligación de notificar ha sido cumplida a través del anuncio en el BOB, la no recepción de las cartas de pago indicadas no supone un defecto de notificación y, por tanto, será obligación del contribuyente obtener el citado documento en el servicio de atención tributaria del Ayuntamiento de Getxo para proceder al pago del impuesto en período voluntario. |
| **0032020060508**<br>**Likidazioak zein helbidetan jakinaraziko zaizkit, edo ordainketa gutunak nora igorriko zaizkit?** | **0032020060508**<br>**¿A qué dirección se me notifican las liquidaciones o se me remiten las cartas de pago?** |
| OHZren erroldan altari dagozkion likidazioak eta ondorengo ordainketa gutunak helbide fiskalera igorriko dira.<br>Helbide hori Getxoko Udalaren Zerga Alorreko Arreta Zerbitzuan kontsultatu daiteke. Helbidea aldatu nahi baduzu, *Zerga helbidearen aldaketa* izeneko agiria aurkeztu behar duzu Erregistro Nagusian, eskatutako dokumentazioarekin batera. | Las liquidaciones correspondientes al alta en el padrón del IBI y las sucesivas cartas de pago se remiten al domicilio fiscal.<br>Puede consultar dicha dirección en el Servicio de Atención Tributaria del Ayuntamiento de Getxo. Si desea modificar dicha dirección deberá presentar en el Registro General Documento Normalizado denominado *Cambio de Dirección Tributaria*, junto con la documentación requerida. |
| **0032020060509**<br>**Higiezin baten gozamena daukat. Zerga ordaindu behar dut?** | **0032020060509**<br>**Tengo un inmueble en usufructo. ¿Tengo que pagar el Impuesto?** |
| Bai. Gozamena duen pertsonak zerga ordaintzeko betebeharra du. | Sí. El usufructuario está obligado al pago del Impuesto. |
| **0032020060510**<br>**Higiezin baten jabetza soila dut. Zerga ordaindu behar dut?** | **0032020060510**<br>**Tengo un inmueble en nuda propiedad. ¿Tengo que pagar el Impuesto?** |
| Ez. Gozamendunari dagokio ordaintzeko betebeharra. | No. El obligado al pago es el usufructuario. |
| **0032020060511**<br>**Alokatuta dagoen higiezin baten jabea naiz; OHZren ordainagiria maizterraren izenean kobra daiteke?** | **0032020060511**<br>**Soy propietario de un inmueble que se encuentra arrendado ¿puede girarse el recibo del IBI a nombre del inquilino?** |
| Ez. Jabeari dagokio ordaintzeko betebeharra.<br>Ordainagiria jasanarazteko maizter eta errentatzaileen arteko itunek ez daukate eraginik Getxoko Udalak subjektu pasiboa ebaztean; zerga urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean betebeharra duenari eskatuko zaio, kasu honetan jabeari. | No. El obligado al pago es el propietario.<br>Los pactos entre arrendador y arrendatario para repercutir el recibo no afectan a la determinación del sujeto pasivo por el Ayuntamiento de Getxo que exigirá el impuesto a quien resulte obligado a 1 de enero de cada año, en este caso, al propietario. |
| **0032020060512**<br>**Nire ezkontidea hil egin da eta ez dut herentzia banatuko; horrenbestez, higiezinaren titulartasuna ez da aldatuko. Hala ere, OHZren ordainagiria nire izenean likidatzea nahi dut. Zer egin behar dut?** | **0032020060512**<br>**Ha fallecido mi cónyuge y no voy a repartir la herencia por lo que no habrá un cambio de titularidad del inmueble. Sin embargo quiero que el recibo del IBI se liquide a mi nombre. ¿Qué tengo que hacer?** |
| *Ordezkaria aldatzea* izeneko agiri normalizatua aurkeztu beharko da, eskatutako dokumentazioarekin batera. | Debes presentar el Documento Normalizado denominado *Cambio de Representante*, junto con la documentación requerida. |

**Kontrol Kodea**
Código de Control

**GEF-GET-IBI-02-DN.487 //**

| | |
|---|---|
| **0032020060513**<br>**Higiezin batean hainbat titularkide gaude. Hala ere, ordainagiriaren %100 nire izenean likidatzen da. Zer egin dezaket?** | **0032020060513**<br>**Somos varios cotitulares de un inmueble. Sin embargo el recibo se liquida por el 100% a mi nombre ¿Qué puedo hacer?** |
| Ondasuna indibisoa denez, eta katastro titulartasuna hainbat pertsonari dagokionez kasuan kasuko partaidetza kuotarekin, OHZren zerga likidazioak titulartasunaren ehuneko handiena duen pertsonaren izenean egiten dira, edo ehuneko berdinak egonez gero, katastroan lehen tokian titular gisa ageri denaren izenean.<br><br>Gai hau argitzeko bi aukera daude:<br><br>1. *Ordezkaria aldatzea.* Aukera honi esker katastrotik datorren ordena aldatu egingo litzateke, eta guztiaren likidazioa katastro titulartasuna duten pertsonetako beste bati egingo litzaioke. Horretarako, *Ordezkaria aldatzea* izeneko agiri normalizatua aurkeztu beharko da, eskatutako dokumentazioarekin batera.<br><br>2. *Zerga-kuotaren banaketa* eskatzea. Aukera honi esker zergaren zerga-kuota katastro-titularren artean banatuko litzateke, bakoitzak ondasunean duen titulartasun ehunekoaren arabera. Horretarako, *Zerga kuotaren banaketa* izeneko agiri normalizatua aurkeztu beharko da, eskatutako dokumentazioarekin batera. | Tratándose de bienes pro indiviso en los que la titularidad catastral esté atribuida a una pluralidad de personas por su respectiva cuota de participación, las liquidaciones tributarias del IBI se practican por el total a nombre de quien ostente mayor porcentaje de titularidad o, a igualdad de porcentajes, a quien figure como titular en primer lugar en catastro.<br><br>Existen dos opciones para resolver esta cuestión:<br><br>1. Realizar un *Cambio de Representante.* Esta opción consiste en alterar el orden que proviene de Catastro y practicar la liquidación por el total a nombre de otra de las personas que ostente titularidad catastral. Para ello, deberán presentar Documento Normalizado denominado *Cambio de Representante*, junto con la documentación requerida.<br><br>2. Solicitar la *División de la cuota tributaria.* Esta opción consiste en dividir la cuota tributaria del impuesto entre los titulares catastrales en función de su porcentaje de titularidad sobre el bien. Para ello deberán presentar el Documento normalizado denominado *División de la cuota tributaria,* junto con la documentación requerida. |
| **0032020060514**<br>**Nire gurasoen higiezin baten OHZren ordainagiria haien izeneko kontu korronte batean zegoen helbideratuta. Biak zendu dira, baina ez da herentzia esleitzeko eskritura egin; hortaz, ondasuna oraindik ez da nire izenean ageri katastroan. Ordainagiria nire izeneko kontu korronte batean helbideratu dezaket?** | **0032020060514**<br>**El recibo de IBI de un inmueble de mis padres se encontraba domiciliado en un número de cuenta a su nombre. Ambos han fallecido pero no se ha realizado la escritura de adjudicación de herencia por lo que el bien aún no figura a mi nombre en Catastro. ¿Puedo domiciliar el recibo en un número de cuenta a mi nombre?** |
| Ez.<br><br>Ordainagiri bat ezin da kontu korronte batean helbideratu subjektu pasiboa ageri ez bada titular, titularkide edo baimendu gisa.<br><br>Kasu honetan, higiezinaren titulartasuna katastroan aldatu ez denez, eta subjektu pasiboa hilda dagoenez, ez da posible helbideratzeari eustea eta ordainketa gutuna postaz bidaliko da helbide fiskalera.<br><br>Ordainketa gutuna beste helbide batean jaso nahi izanez gero, berariaz eskatu beharko duzu Erregistro Nagusian *Zerga helbidearen aldaketa* izeneko agiri normalizatua aurkeztuz, eskatutako dokumentazioarekin batera. | No.<br><br>No se permite domiciliar un recibo en un número de cuenta en la que el sujeto pasivo no figure como titular, cotitular o autorizado.<br><br>En este caso, debido a que aún no se ha realizado el cambio de titularidad del inmueble en catastro, el sujeto pasivo se encuentra fallecido por lo que no es posible mantener la domiciliación bancaria y la carta de pago se enviará por correo al domicilio fiscal.<br><br>En caso de que desee recibir la carta de pago en otra dirección deberá solicitarlo expresamente a través del Registro General debiendo presentar Documento Normalizado denominado *Cambio de Dirección Tributaria*, junto con la documentación requerida. |
| **0032021071615**<br>**Iaz higiezin bat saldu nuen eta akats baten ondorioz aurtengo ordainagiria berriz ere nire izenean igorri da.**<br>**Nola konpon dezaket?** | **0032021071615**<br>**Vendí un inmueble el año pasado y, debido a algún error, el recibo de este año se ha girado nuevamente a mi nombre**<br>**¿Cómo puedo solucionarlo?** |
| Sarrera-erregistroan *Zerga-likidazioa ezeztatzea titularraren akatsagatik* dokumentu normalizatua aurkeztu behar da, eskatutako dokumentazioarekin batera. | Debes presentar por Registro de Entrada el Documento Normalizado denominado *Anulación liquidación tributaria por error en titular* junto con la documentación requerida. |
| **0032020060516**<br>**Udalak aurtengo likidazio bat baliogabetu du, helbideratuta zegoena edo nahierako ordainketaren mende zegoena; kopuru txikiagoa duen beste likidazio bat jakinarazi dit. Likidazio berri hau helbideratuta egongo da, edo nahierako ordainketaren mende, hasierako likidazioa bezala?** | **0032020060516**<br>**El Ayuntamiento ha revocado una liquidación del año actual que se encontraba domiciliada o acogida al pago a la carta y me ha notificado una nueva liquidación por menor importe. Esta nueva liquidación ¿estará igualmente domiciliada o acogida al pago a la carta como la liquidación original?** |
| Ez. Likidazio berria posta ziurtatuz jakinaraziko da helbide fiskalean, eta bertan ordaintzeko modua eta data jakinaraziko dira; ezingo da aurtengo nahierako ordainketen edo helbideratzeen sisteman sartu. Hala ere, baliogabetutako hasierako likidazioak esleituta zeukan ordainketa modua esleituko zaio hurrengo urteetan likidazioari. | No. La nueva liquidación será notificada por correo certificado al domicilio fiscal indicándole en ella el plazo y forma de pago no pudiendo ser introducida en el sistema de domiciliaciones o pagos a la carta del año vigente. No obstante, en los años sucesivos, la liquidación tendrá asignado como forma de pago la que tuviera la liquidación original que fue revocada. |

| | |
|---|---|
| **0032020060517**<br>**Katastroak katastro balioa beherantz birkalkulatu du, eta katastro balio handiago batean oinarrituz kalkulatu diren OHZ ordainagirietan eragina izan dezake. Zer egin dezaket nire OHZ erregulatzeko?** | **0032020060517**<br>**Catastro ha recalculado el Valor Catastral a la baja pudiendo incidir en recibos de IBI que han sido calculados en base a un VC superior ¿Qué puedo hacer para regularizar el IBI?** |
| *Katastro balioa birkalkulatzearen ondorioz bidegabeki jasotako diru-sarreren itzulketa* izeneko agiri normalizatua aurkeztu behar da, eskatutako dokumentazioarekin batera. | Debes presentar el Documento Normalizado *denominado Devolución de Ingresos Indebidos por recálculo del Valor Catastral*, junto con la documentación requerida. |
| **0032020060518**<br>**Aurreko kasuetan, modu bidegabean ordaindu dudan kopuru jakin bat itzuli behar bazait, zein unetan itzuliko didazue gehiegi ordaindutako kopurua?** | **0032020060518**<br>**En los casos anteriores, si procede que se me devuelva una cantidad que he ingresado indebidamente ¿En qué momento me devolvéis lo ingresado en exceso?** |
| Oro har, sei hilabeteko epean.<br><br>Hala ere, itzulketa aurtengo ordainagiri bati badagokio, eta ordainketa nahierara egin bada, orduan itzulketa ordainketa guztiak egin ondoren egingo da.<br><br>Modu bidegabean ordaindutakoa itzuli behar denean, eta zenbait epetan egin bada, itzuli beharreko kopurua azken epean ordaindu zela ulertuko da. Nahierako ordainketa edo helbideratutako ordainketa arruntaren modalitatea daukaten ordainagiriak izanik, kontuaren titularraren aginduz banku helbideratzeak ukatzeko legez ezarritako epea igaro ondoren itzuliko da bidegabeki jasotakoa. | Con carácter general, en un plazo de 6 meses.<br><br>No obstante, en el caso de que la devolución afecte a un recibo del año actual acogido al pago a la carta la devolución se realizará una vez cumplimentados todos los pagos.<br><br>Cuando proceda la devolución de ingresos indebidos, y se hubiera ingresado en varios plazos, se entenderá que la cantidad a devolver se ingresó en el último plazo. Tratándose de recibos acogidos a la modalidad de pago domiciliado ordinario o pago a la carta, la devolución de ingresos indebidos se realizará una vez transcurrido el plazo legalmente establecido para el rechazo de domiciliaciones bancarias por orden del titular de la cuenta. |
| **0032020060519**<br>**Dibortziatu egin naiz eta etxebizitzaren erabilera nire ezkontide ohiari dagokio. Nork ordaindu behar du OHZ?** | **0032020060519**<br>**Me he divorciado y el uso de la vivienda lo ostenta mi ex cónyuge. ¿Quién tiene que pagar el IBI?** |
| Erabiltzeko eskubidea ez da usufruktuaren parekoa eta, horrenbestez, kasu honetan, OHZ higiezinaren jabeak ordaindu behar du.<br><br>Bi ezkontide ohiek ondasunaren jabe izaten jarraitzen badute, ulertuko da OHZren ondorioetarako ondasun bat indibisoan dutela eta katastro titulartasuna hainbat pertsonari dagokiela, bakoitzak bere partaidetza kuotarekin.<br><br>OHZren ondorioetarako zerga likidazioak, guztira, titulartasun ehuneko handiena duenaren izenean egingo dira, edo, ehuneko berdinetan, katastroan lehen tokian titular gisa ageri denaren izenean. Pertsona horrek aipatutako indibisoaren ordezkari gisa jokatzen du.<br><br>Gai hau argitzeko bi aukera daude:<br><br>1. Ordezkaria aldatzea. Aukera honi esker katastrotik datorren ordena aldatu egingo litzateke, eta guztiaren likidazioa katastro titulartasuna duten pertsonetako beste bati egingo litzaioke. Horretarako, *Ordezkaria aldatzea* izeneko agiri normalizatua aurkeztu beharko da, eskatutako dokumentazioarekin batera.<br><br>2. Zerga-kuotaren banaketa eskatzea. Aukera honi esker zergaren zerga-kuota katastro titularren artean banatuko litzateke, bakoitzak ondasunean duen titulartasun ehunekoaren arabera. Horretarako, *Zerga-kuotaren banaketa* izeneko agiri normalizatua aurkeztu beharko da, eskatutako dokumentazioarekin batera. | El derecho de uso no es equiparable al usufructo y por ello, en este caso, quien debe pagar el IBI es el propietario del inmueble.<br><br>Si los dos ex cónyuges siguen siendo propietarios, a los efectos del IBI se considerará que mantienen un bien en proindiviso en el que la titularidad catastral esté atribuida a una pluralidad de personas por su respectiva cuota de participación.<br><br>A efectos de IBI, las liquidaciones tributarias se practicarán por el total a nombre de quien ostente mayor porcentaje de titularidad o, a igualdad de porcentajes, a quien figure como titular en primer lugar en catastro. Esta persona actúa como representante del citado proindiviso.<br><br>Existen dos opciones para resolver esta cuestión:<br><br>1. Realizar un Cambio de Representante. Esta opción consiste en alterar el orden que proviene de Catastro y practicar la liquidación por el total a nombre de otra de las personas que ostente titularidad catastral. Para ello, deberán presentar Documento Normalizado denominado Cambio de Representante, junto con la documentación requerida.<br><br>2. Solicitar la División de la cuota tributaria. Esta opción consiste en dividir la cuota tributaria del impuesto entre los titulares catastrales en función de su porcentaje de titularidad sobre el bien. Para ello deberán presentar el Documento normalizado denominado División de la cuota tributaria, junto con la documentación requerida. |